

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 712/2020 Erabakia, abenduaren 29koa. Onespena ematea Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren 2020rako enplegu publikoaren eskaintzari

Uztailaren 13ko 8/2016 Foru Arauaren bidez, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoa eratu zen, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzu publikoa kudeatzeko eta emateko, eta Arabako Lurralde Historikoan babes zibilarren eta larrialdien arretaren inguruan parte hartzeko.

Foru arau horrek hirugarren xedapen gehigarrian, Aurrekontuko Plantillan, xedatu zuenez, hurrengo ekitaldietan behar ziren plazak sortuko ziren zerbitzua zabaltzeko.

2017tik 2020ra arteko ekitaldietan, zerbitzua Arabako Lurralde Historiko guztian hedatu da eta SISEUen dotazioak osatu dira suteen prebentzio eta itzaltze eta salbamendu zerbitzua egunean 24 orduz eta urteko 365 egunetan eman ahal izateko behar diren langileekin.

Horretarako, aurretik aipatu diren urteetan zehar, hainbat aukeraketa prozesu egin dira, sarrera librekoak nahiz barne sustapenekoak, erakunde autonomoko lanpostuen zerrendan sortutako plazak betetzeko.

Halaber, 2020an, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 17ko 163/2020 Erabakiaren birtartez, onetsi zen erakunde autonomoko lanpostuen zerrenda aldatzea, zuzkiduraburu plaza bi kenduz eta haien ordez Suteen Prebentzio eta Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko ikuskatzaile plaza bat eta zuzendaritzako idazkari plaza bat sortuz Giza Baliabideen eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuan. Era berean, Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 7ko 302/2020 Erabakiak goi-mailako teknikari ekonomista plaza bat sortu du.

Laburbilduz, plaza berriak sortzearen nahiz barne sustapeneko prozesuen eta eszedentzien ondorioz, erakunde autonomoan badaude aurrekontu zuzkidura duten postu huts batzuk, enplegu eskaintza publikoaren onespene honen barruan sartu behar direnak.

Uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, 23.1 artikuluan, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak emandako idazkeraren arabera, xedatzen duenez, "Administrazio Publiko bakoitzeko langileekin bete ezin diren giza baliabideak, hots, aurrekontu izendapena dutenak, enplegu publikorako eskaintzaz beteko dira".

Gaur gaurkoz oraindik ez denez onartu Estatuaren 2020ko Aurrekontu Orokorren Legea, aplikatzekoa da azaroaren 47/2003 26 Lege Orokorrak (Aurrekontuena) xedatutakoa. Hain zuzen ere, lege horrek 38. artikuluan ezartzen duenez, Estatuko aurrekontu orokorrak luzatuko dira baldin Estatuko aurrekontu orokorren Legea ez bada onartzen kasuan kasuko ekitaldi ekonomikoaren lehenengo eguna baino lehen, eta zuzenean luzatutzat joko dira aurreko ekitaldiko hasierako aurrekontuak, harik eta berriak onartu eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren arte.

Alde horretatik, eta enplegu publikoaren eskaintzari dagokionez Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak aurtengo urterako ezar ditzakeen muga eta irizpideen arabera kasuan kasu aintzat hartu beharko diren aldaketak ezertan galarazi gabe, administrazio honen aburuz aplikatzekoa da uztailaren 3ko 6/2018 Legeak (Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorrena) 19. artikuluan xedatutakoa.

Uztailaren 3ko 6/2018 Legeak (Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorrena) 19. artikuluan ezartzen ditu 2018ko ekitaldirako langile berriak sartzeko muga eta eskakizunak, betiere dagozkion gastu aurrekontuen I. kapituluko aurrekontu baliabideen arabera.

Ondorio horietarako, xedatzen da berriztapen tasa gehienez ehuneko 100ean ezarriko dela, beste kasu batzuen artean, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuetako langileen plazak betetzeari dagokionez, betiere, Estatuko aurrekontu orokorren legeek zorpetze eragiketen baimenari dagokionez ezartzen dituzten mugak betetzen badira edo horiek gainditzen ez badira, eta, gainera, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak, aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasunarenak, 11.4 artikuluan aipatzen duen egonkortasun printzipioa betetzen bada, bai aurreko ekitaldiko bai indarreko aurrekontuaren likidazioan.

Arabako Foru Sektore Publikoak, Kontuen Europako Sistemari jasotako baldintzetan, aipatutako aurrekontu legeak zorpetze mailari eta aurrekontu orekari dagokienez ezarritako baldintzak betetzen ditu. Baina, bestalde, aurrekontuko plantillako plaza hutsen deialdiak ez dakar foru administrazioko langileen gastuaren gorakadarik; izan ere, kostua, aipatu den bezala, hark finantzatu izan du, osorik.

Ondorioz, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua onartzen duenak, 37.1.l) artikuluan aurreikusitako ordezkari sindikaleko erakundeekin negoziazioa egin ondoren, bidezkoa da Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren enplegu publikoaren eskaintza onartzea; bertan, ekainaren 27ko 3/2017 Legeak, Estatuko 2017. urterako aurrekontu orokorrenarenak, 19. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, aurrekontuko plaza huts guztiak jasotzen dira, kontuan hartuta horien hornidura ezin dela geroratu, prebentzio, su itzaltze eta salbamenduko zerbitzu publikoaren funtzionamendu egokirako.

Beste alde batetik, desgaitasuna duten pertsonen sarrerari dagokionez, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, zeinaren bidez onesten baita Enplegatu Publikoen Oinarritzko Estatutuaren testu bategina, hau xedatzen du 59. artikuluan:

“1. Enplegu publikoaren eskaintzetan bete beharreko lanpostuen ehuneko zazpiko kupoa gordeko da gutxienez, desgaitasunen bat duten pertsonak bete ditzaten, betiere, hautaketa-prozesuak gainditu, desgaitasuna egiaztatu eta desgaitasun hori bete beharreko zereginekin bateragarri dela erakutsita, horrela, arian-arian, administrazio publiko bakoitzak dituen langile guztien ehuneko bira iritsi arte. Desgaitasuna duten pertsonatzat joko dira azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsitako Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta Haien Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 4. artikuluen 2 zerbakiak jasotakoak.

Gutxienezko ehuneko zazpi hori erreserbatzeko orduan gutxienez eskaintako plazen ehuneko bira adimen-desgaitasuna egiaztatzen duten pertsonak bete beharko dute eta eskaintako gainerako plazak beste edozein desgaitasun mota egiaztatzen dutenek.”

Horren ondorioz, eskaintza honetatik sortutako deialdietan plaza bat jaso beharko da beste edozein motatako desgaitasuna dutela egiaztatzen duten pertsonak betetzeko. Plaza hori honen emaitza da: EEPn ezarritako plaza hutsen kopurua eta ezarritako ehuneko biderkatu, ateratako emaitza goraka biribilduz hurrengo zerbaki osoraino.

Ikusi da Kontuhartzailak eta Kontrol Zerbitzuak aurretiaz emandako baieztazio fiskalizazio txostena.

Erakunde autonomoko estatutuen 13.2.f) artikulua dioenez, Administrazio Kontseiluari dagokio Foru Gobernu Kontseiluari aurkeztea, onets ditzan, erakunde horretako langileen lan baldintzei buruzko proposamenak. Funtzio publikoaren arloan eskumenak dituen sailarekin koordinatuko da horretarako, eta alde aurretik langileen legeko ordezkariekin bilduko da dagokion negoziazio mahaian.

Horregatik guztiagatik, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak adierazitako datan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren 2020. urterako enplegu publikoaren eskaintza, erabaki honen eranskinean jasotzen denari jarraituz.

Bigarrena. Sartzeko sistema orokorra irekia izango da, aipatutako eranskinean barne sustapenerako sistemarako gordetzen diren plazetan izan ezik. Euskal funtzio publikoa arautzen duen 6/1989 Legearen 56. artikuluko 3. apartatuan ezarritakoaren arabera, barne sustapenerako gordetako plaza hutsak, bete gabe gertatzen badira, txanda irekian eskainitako ei gehituko zaizkie, txanda horretaz baliatzea onartzen den kategorietan.

Hirugarrena. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 59. artikuluan xedatutakoa eta Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak xedapen gehigarrietako zazpigarrenean ezarritakoa betetz, bai eta aplikatzekoa den araudia ere, lanpostu huts baten erreserba ezartzen da ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak betetzeko, betiere hautaprobak gainditzen badituzte eta, bere garaian, egiaztatzen badute adierazi den desgaitasun maila dutela eta lanak eta eginkizunak betetzearekin bateragarria dela aplikatzekoa den legerian ezartzen den moduan, suhiltzaile kategorian.

Desgaituentzat gordetako plaza, plaza arrunten deialdian eskainiko da, erabaki honen eranskinean ezarrita dagoenaren arabera, eta, deialdiaren hautaketa prozeduretan onartuak izateko, gainerako izangaiek bete behar dituzten baldintza berberak bete behar dituzte; beraz, hautaprobetan, hala eskatzen duten pertsona desgaituentzat, denbora eta ingurua egokitu egingo dira, betiere horrek ez badakar hautaprobak edukia hutsaltzea edo hautaprobetan eskatzen den gaitasun maila murriztea edo gutxitzea.

Laugarrena. Hautaketa prozedura oposizio-lehiaketa bidezkoa izango da, eta erakunde autonomoko lehendakariak onartutako deialdietan ezarriko dira, uztailaren 13ko 8/2016 Foru Arauak onartutako estatutuen 13. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, horietan parte hartzeko baldintzak eta, hala badagokio, euskararen derrigorrezko hizkuntza eskakizuna; hura nahitaez bete behar da sartzeko.

Bosgarrena. Urriaren 70.1 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua onartzen duenak, 30 artikuluan ezarritakoaren arabera, dagozkion hautaprobak 3 urteko epean egin behar dira, gehienez ere, erabaki hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Seigarrena. Erabaki hau eta beraren eranskina ALHAOn argitaratzea, bai eta laburpen bat ere EHAA-n.

Zazpigarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean; hori guztia honako hauek xedatutakoaren arabera: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 46ko 29/1998 Legearen 13 artikulua eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 123ko 39/2015 Legearen 1. Artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 29a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA

GIDABAIMENA (*)	TITULAZIO TALDEA	KATEGORIA	SARRERA SISTEMA IREKIA	BARNE SUSTAPENA	DT	GUZTIRA
CE	A1	Ikuskatzailea		1		1
CE	A2	Ikuskatzaileordea		1		1
CE	C1	Ofizialordea		2		2
B	C1	Ofizialordea		1		1
CE	C2	Cabo/a Kaboa		3		3
CE	C2	Suhiltzaile-gidaria	5		1	6
	C1	Administraria	1			1
B	A1	Ekonomiako goi-mailako teknikaria	1			1